

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA
OGASUN ETA EKONOMIA SAILA

5207

173/2019 DEKRETUA, azaroaren 5ekoa, zeinaren bidez baimena ematen baitzaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari «Aparkabisa Bizkaiko Garraio Gunea AB – Centro de Transportes de Bizkaia SA (Aparkabisa)» sozietatearen kapital-gehikuntzan parte har dezan.

Europar Batasuneko herrialdeen arteko merkataritzako harremanak ugartu eta garraioaren sektoreak ekonomian gero eta pisu handiagoa hartu ahala, hainbat zentro sortu dira Europar garraio-eskaintza eta -eskaria leku berean biltzeko, eta intermodalitatea koordinatu ahal izateko, horrek asko errazten baitu garraio-enpresen antolaketa, kudeaketa eta koordinazioa.

Abenduaren 20ko 242/1982 Dekretuaren bidez, «Aparkabisa Bizkaiko Garraio Gunea AB – Centro de Transportes de Bizkaia SA (Aparkabisa)» sozietatea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sozietate publiko gisa eratu zen, baina abenduaren 3ko 375/1985 Dekretuaren bidez galdu zuen izaera hori.

Sozietate horren xedea da Bizkaiko Lurralde Historikoan Salgaien Zentral Integralak eta ibilgailu astunentzako aparkalekuak sustatu, prestatu eta ustiatzea.

Hitzartutako gehikuntza baino lehenagoko sozietate-kapitala hogeita bederatziehun eta hogeita bat mila hirurehun eta hirurogeita sei (29.921.366) eurokoa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak bost milioi bederatziehun eta hirurogeita hamahiru mila eta laurogeita zortzi (5.973.088) euroren partaidetza eta sinadura du, eta Eusko Jaurlaritzari 239 euroko balio nominala duten 24.992 akzio dagozkio, alegia, kapitalaren % 19,9626.

EAEko garraioko zentro integratuak indartzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren politikari jarraikiz, aintzat hartu da «Aparkabisa Bizkaiko Garraio Gunea AB – Centro de Transportes de Bizkaia SA» sozietateak bere kapitala laurogeita hemeretzi mila seiehun eta hirurogeita hiru (99.663) euro zabaltzeko egindako aurreikuspen-txostena, berrehun eta hogeita hemeretzi (239) euroko balio nominala duten laurehun eta hamazazpi (417) akzio izendun jaulki eta salerosketarako ipiniz.

Kapital-gehikuntzari buruzko aurreikuspen-txostena aztertu ostean, bidezkotzat jo da, helburu horri begira, kapital horren gehikuntzan parte hartzea. Ondorioz, EAEko Administrazioak sozietatearen kapitalean % 19,9624ko partaidetza izango du, betiere Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren 110. artikuluan eta gainerako xedapen bateragarrietan adierazitako prozeduraren arabera.

Ondorioz, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren eta Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2019ko azaroaren 5ean egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren partaidetza baimentzea «Aparkabisa Bizkaiko Garraio Gunea AB – Centro de Transportes de Bizkaia SA (Aparkabisa)» sozietatearen Akziodunen Batzar Nagusiak erabakitzen duen kapital-gehikuntzan; EAEko Administrazioak hemeretzi mila zortzietan eta hogeita hamazazpi (19.837,00) euroko ekarpena egingo du, eta, ondorioz, sozietatean % 19,9624ko partaidetza izango du aurrerantzean.

2. artikulua.— Ondare eta Kontratazioko zuzendariari edo parte hartzeko kide-eskubideak dituenari baimena ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean, akzioak harpidetu eta estaltzeko beharrezkoak diren ordainketak eta ekarpenak egiteko, kapital-gehikuntzak gizarte-es-tatutuetan eragiten duen aldaketa onartzeko, baita, orokorrean, aurreko artikuluan xedatutakoa betetzeko beharrezkoak diren gainontzeko jarduketetan aritzeko ere.

AZKEN XEDAPENA

Onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko azaroaren 5ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

Ogasun eta Ekonomiako sailburua,
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.